

Bizipenak trukatzeko topaketa birtuala

Gaur, abenduak 2, online elkartu gara 2020ko hirugarren eta azken Elkargo Ekin egiteko, Euskaraldiaren testuingurua aprobetxatuta. Elkargo Ekin ekimena Basquepro Elkargoak Euskaraz proiektuaren barruan dago kokatuta, eta euskaraz giro lasaian aritu ahal izateko gunea eskaintzea du helburu, bai Elkargoentzat, bai elkargokideentzat. Baita kontzientzia linguistikoa pizteko ere, elkar ezagutuz eta lan arloko bizipenak partekatuz.

Gaurkoan gaia pandemiak sortutako egoera berrira nola moldatu garen izan da. Koordinatzaileok eta Bilbao Metropoli 30eko ordezkariok eman diogu hasiera saioari, eta ondoren bertaratutako bi Elkargoek azaldu digute nola bizi izan dituzten aldaketa guztiak.

Nola moldatu da gure jarduera profesionala pandemia garaira?

Encuentro abierto: ¿cómo hemos adaptado nuestra actividad profesional a esta nueva situación?

Ahobizi eta belarriprestok, adi!!!
Euskaraldiren testuinguruan,
topaketa irekia


EUSKARALDIA
GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN
Azaroaren 20tik abenduaren 4ra

Zer **aldatu** da gure eguneroko lanean?
Nola ikusten dugu **etorkizuna**?
Konektatu online eta kontatu zure bizipenak

Abenduak 2, goizeko 12:00etan
Lotura: meet.google.com/phc-vhge-dxf

Elkargo ekin motibazio-ekimenak, giro lasaian euskaraz aritzeko, kontzientzia pizteko eta elkarrekin jarduteko.

Elkargo ekin, encuentros abiertos para hablar en euskera en ambiente distendido, despertar nuestra conciencia lingüística y avanzar juntos-as.



ELKARGOAK
EUSKARAZ
Basquepro

Bizkaiko Abokatuen Elkargotik aipatu digute hasiera batean atxilotuen asistentzia eta abokatuen segurtasuna bermatzeak eragin izan zituela buruhausterik handienak. Hasierako oztopoei konponbidea ematen jarri zituzten indar guztiak, arlo judizialeko erakunde publikoekin ere koordinatzen saiatuta. Ondoren, taldean erabaki zuten hainbat baliabide jarriko zituztela eskuragarri elkargokideentzat, horien artean liburutegi digitala, dena dohainik. Bestalde elkargokide askoren diru-sarreraren murrizketak direla eta 2. hiruileko kuota ez zuten kobratu eta horrez gain 500.0000 euroko poltsa bat jarri zuten, egoera larriak arintzeko. Prestakuntzan ere arreta jarri zuten: egoeraren berri emateko mezuak eta pilulak zabaltu zituzten elkargokideei laguntzeko. Abokatuen Elkargotik zurrunbiloaren barruan alderdi positiboak ere atera daitezkeela azpimarratu digute, talde lanaren garrantzia adibidez: jende asko jabetzen ari da aldaketei bakarrik aurre egiten diegunean zailtasun handiagoak ditugula ekipo sendoak osatzen ditugunean baino, eta azken hilabeteak talde lana sendotzeko eta bere garrantziaz jabetzeko balio izan dute. Azkenik pasa den Zuzendaritza bileran Euskara Planari bultzada bat ematea erabaki dutela aipatu du, baliabide gehiago eskainita euskara plan sendoago bat gauzatu ahal izateko.

Bizkaiko Haginlarien Elkargoaren kasuan, Elkargo sanitarioa izanda, bete-betean harrapatu zituen aurtengo pandemiak. Batez ere protokoloak zabaltzea izan zen hasiera bateko lana: pazienteak zelan atenditu, segurtasuna zelan bermatu... Arlo horretan ere aurretiazko eskarmentua baliatu zuten, izan ere, HIESA dela sorturiko protokoloak oinarri sendoa ziren horretarako, eta asko erraztu zuen lana, horiek egokitu dituztelako. Konpondu beharreko

egoera berrien artean, ekonomikoak ere eragina izan du, gainerako sektore gehienetan bezala, ERTEak eta bestelakoak kudeatu behar izan dira, etab. Horrez gain, osasun-elkargoa izanik, aholku eta gomendioak zabaltzea funtzio garrantzitsua izan da, bai prentsa bidez bai bestelako bidez. Azkenik, prestakuntza eta jarduera zientifikoaren garrantzia azpimarratu nahi izan digute: nahiz eta muga handiak izan eta aforo kontuengatik murriztu den, eutsi egin diote urtero bezala irailetik aurrera.

Topaketaren ondorio moduan, eta gaia zein zen kontuan izanda parte-hartzaileok hainbat ideia aipatu ditugu:

- Sumatzen den tristura giroan ekimenak aurrera ateratzeak, elkarteak eta bizipenak partekatzeak garrantzi handia dute
- Euskara arloan Euskaraldiak eta beste ekimen masiboek hainbat aukera ematen digute: gure ohiturak hobetzeko, gelditzeko eta burua despejatzeko...



Horrez gain, eta behin topaketa amaituta, urte amaieran Euskaraldiak berak izan duen eraginari buruz, **Bizkaiko Albaitarien Elkargoak** honakoa aipatu nahi izan digu:

Euskaraldiari esker elkargokide guztiek dakite euskaraz zuzendu ahal direla Elkargora. Konturatu gara elkargokide batzuk telefonoz edo emailaz hasi direla euskaraz hitz egiten. Gure ustez mezua argi eta garbi ailegatu da eta poliki-poliki aldatzen ari da ohitura.

Eta **Ekonomisten Euskal Elkargoak**, berriz, honakoa:

Edizio honetan 2018an baino elkargokide gutxiagok parte hartu izan dute. Aurrez aurreko harremanak ugaritzen ez direnez, ekimena ez da hainbeste ikusi. Elkargoaren barne harremanak 15 egun horietan aldatu izan dira baina hau amaitzean, berriz ere aurreko egoerara bihurtzen ari dira (astiro baina bai ahozkoan bai idatzizko komunikazioa lehengo egoerara bueltatzen ari da...). Hurrengo edizioan Euskaraldiaren presentzia ugaritu beharko genuke Sare Sozialetan izena eman dutenen testimonioak jasoz.

